anboto

TOKIKOM

2012ko irailaren 28a
10. urtea - 473 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri | 8
Futbol zelai berrirako plana gelditzea eskatu du oposizioak Durangon

Berbaz | 9
Lehentasunezko partizipazioekin kaltetu dituztenek talde-salaketa prestatu dute

Kirola | 16
Futbolari gazteak euskaraz zelan trebatu ikasi dute 32 entrenatzailek

KULTURA | 13

Heldu da Irrien Lagunen Kluba Durangaldera

Berbarok eta Plateruenak Irrien Lagunekin antolatuko dute Olgetan programa ikasturte honetan

DURANGALDEA | 3

Grebak eragin handiena izan duen eskualdeetako bat izan da Durangaldea

Lea-Artibai, Busturialdea eta Durangaldea dira Bizkaian greba orokorra gehien jarraitu duten eskualdeak. ELA eta LABeko ordezkarien arabera, industrian enpresa handi gehienek ateak itxi zituzten eguaztenean, murrizketen kontra daudela adierazteko. Administrazio publikoan, hezkuntzan eta komertzioan ere jarraipena ia osoa izan zela dio gehiengo sindikalak.

Berriz | 7
Hondakindegia zigilatzeko beharrak amaitu dituzte

Abadiño | 6
Abamotorrek hamar nomina zor dizkie beharginei

Durangaldea | 3
Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatuko dute astelehenean

Mallabia | 8
Ortu ekologikoen araudia aho batez onartu du udalak

HERRIRIK HERRI

Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGALDEA

Animaliei jaietan emandako tratua eztabaidagai

Sokamuturra, herri-kirolak eta beste hainbat ekitaldik aldekoak eta kontrakoak izaten dituzte

Durangaldean antolatzen diren jai gehienetan animaliekin zerikusia duten hainbat ekintza daude. Leku askotan animaliek parte hartzen duten ekitaldiak bertan behera gelditu dira edo tradizio horiek gaurkotu egin dituzte.

Zezenak dira izaten da Durangoko jaietan parte-hartze handiena izaten duen ekitaldia. Goizeko 07:30ean bigantxak ateratzen dituzte alde zaharrera. Natxo Martinez zinegotziak (EAJ) urte asko daramatza jai batzordean sokamuturra prestatzen. 1987ko lege aldaketagaz bigantxei ematen zaien tratua

ATEA elkartea: Udaletxeak dira legea betearazteko ardura dutenak

erabat aldatu dela azaldu du: "Legeak animalienganako tratu txarrak debekatzen zituenez, buztanetik ebatzeari eta ziztatzeari utzi zitzaion". Gaineratu duenez, animaliak kamioitik irten eta sartu egiten dira eta ordu bian berriro ere larrean daude: "Animaliak ez du sufritzen. Zezenketa profesionalak beste kontu bat dira". Aurrekontuari dagokionez, bigantxak lau egunetan ekartzeak 8.000 euroko kostua du eta seguruek beste 10.000 eurokoa. Otxandion ere tradizio handia du jaietan antolatzen duten sokamuturrak.

Idi-probak tradizio

Herri kiroletan idiei, astoei edo zaldiei emandako tratuak ere zeresan handia ematen du. Proba ugari daude Durangaldean. Hala ere, tradizio handiena dutenak Abadiñoko San Blas jaietakoak dira. Jose Antonio Odriozola *Gaztelu*-k 30 urte daramatza herri kiroletan epaile. *Gaztelu*-k dioenez akuilua larregi erabiltzen duenari hiru abisu ematen zaizkio eta hirugarrenean kendu egiten zaio: "Ni epaile nagoenean karreteroek badakite horretan oso zorrotza naizela eta bete egiten dudala". Azken urteotan erreglamendua ere zorroztu egin dela dio abadiñarrak.

ATEAren kritikak

Animaliei Tratu Etikoa Ematearen Aldeko Elkarteak (ATEA), berriz, orain arte pauso asko eman direla nabarmendu arren, oraindik legea ez dela betearazten azaldu du. Kepa Tamames elkartearen ordezkariaren berbetan, 6/1993 legeak dio animalien sufrimendu edo estura debekatuta dagoela. "Sokamuturrean ez da legea betetzen, zezenak estualdirik ez duela pasatzen ez badu inork esaten behintzat". Gogorarazi duenez, udalak dira lege hori betearazteko ardura dutenak. ■ J.G.



Goian, Iurretako ahari topeka (Iñaki Irazabal); beheran, Durangoko 'Zezenak dira' (K. Aginako).

Ahari topekak bertan behera Iurretako jaietan

2007an utzi zioten Iurretan ahari topekak antolatzeari. Animaliei Tratu Etikoa Ematearen Aldeko Elkarteak eskaera hori egin zuen jai batzordean eta baita udalean ere, 1993ko legea gogora ekarriz. Joseba Agirre *Iketza* iurretarrak sutsuki defendatzen ditu behinolako ahari topekak. Antolatzaileetako bat izateaz gainera, ahariak entrenatzen zituen: "Oso txarto hartu genuen debekuaren berria. Ahari topekan ez dago tratu txarrik. Ahariak berak gura duenean bakarrik jotzen du, plazan zein mendian".

Txerri harrapatzeak ere auzo askotan antolatzen ziren, Gerediaga auzoan, besteak beste. Gaur egun, ekitaldi hau jai egitarautik kendu egin dute. Animaliekin egiten diren zozketak ere dagoeneko bertan behera utzi dituzte, Abadiñoko San Blas jaietako txahalaren zozketa, esate baterako.

Durangon ez dute onartu preso gaixoen inguruko mozioa

Preso gaixoak askatzea eskatu dute Bilduk eta Aralarrek hainbat udaletan

Gaixotasun larri eta sendaezinak dauzkaten preso politikoak askatzeko eskatu dute Bilduk eta Aralarrek hainbat udaletan. Josu Uribetxebarria preso gaixoa libre geratuta, egoera berean beste hamahiru preso daudela gogoratu dute. Alderdi bien ustez, preso horiek arreta berezia behar dute eta kartzelan ezin dute tratamendua jaso. Horrela, Espainiako agintariak giza eskubideen oinarrizko zutabeak urratzen dabiltzala kritikatu dute. Espainiako Konstituzioaren 92. artikuluak eskaera hori jasotzen duela ere adierazi dute. Durangon ez da onartu mozioa. Atxondon eta Otxandion bai, Bilduren botoekin.

Uribetxebarria libre geratuta, egoera berean beste hamahiru preso daudela gogoratu dute

Bilduk eta Aralarrek "trikimailu elektoralista" ikusi dute jeltzaleen jarreran

EAJk aparteko mozio bat aurkeztu du. Hamahiru presoak aipatu barik, espetxeratuen giza eskubideak errespetatu behar direla diote. Durangoko Bilduk eta Aralarrek esan dute ez zekitela jeltzaleek mozioa aurkeztu behar zutenik, eta jakinez gero, adosten saiatuko zirela. "Trikimailu elektoralista" ikusi dute jeltzaleen jarreran: "Ardura erakutsi nahian, baina kalkuluak oso ondo eginda, bozketan berdinketa bat emateko eta bi mozioetako batek ere aurrera egin ez dezan". ■ M.O.

Elorriok kenduta, guztiek onartu dute A8ko mozioa

Gerediagako eta Iurretako peajeak parekatzea eskatu du Bilduk hainbat udalbatzarretan

A8 autobidean, Gerediagatik sartuta Bilbora joan gura dutenek, Iurretan sartuta baino 0,81 zentimo gehiago ordaindu behar dute. Bilduren ustez, herritar horiek ekonomikoki zigortzen dira horrela. Horregatik, bi peajeak parekatzea eskatu dute hainbat udaletan. Mozioa Elorrion bakarrik ez da aurrera atera; Abadiñon, Atxondon eta Berrizen onartu dute.

Bilduk PSE-EEren babesa eduki du. Abadiño AIrena ere bai. Jose Luis Navarro alkateak dio tarifak ez direla logikoak eta justuak. EAJk kontra bozkatu du. Joseba Mujika Elorrioko alkateordeak esan du gaia Batzar Nagusietan landu dela, eta berandu dela. Hauteskundeen atarian demagogia egitea leporatu dio Bilduri. PPko Carlos Garciak ere kontra bozkatu du Elorrion. Bere programan autobidea doakoa izatea zekarrela-eta, mozioaren kontra egitea kritikatu dio Bilduk. Bestalde, Gipuzkoarantza 0,40 merkeago dela gogoratu du Orlan Isoird Berrizko alkateak. ■ M.O.

Grebak Durangaldean jaso du babesik handienetakoa

Ehundaka batu ziren protestan, Elorrion eta Durangon, murrizketen aurka

Gehiengo sindikalaren arabera, eguazteneko grebak jarraipen ia osoa izan zuen eskualdean. Bizkaian, babes handiena Durangaldeak agertu zuen, Busturialdeagaz eta Lea-Artibaigaz batera. Elorrion eta Durangon, ehundaka lagun bildu ziren arratsaldean, murrizketen kontra deitutako manifestazioetan.

Industrian, enpresa gehienek ateak itxi zituzten ELA eta LABen arabera. Fuchosa, Cemosa, Layde, Ona eta hainbat enpresa handik ez zuten lanik egin. Sektore publikoan eta hezkuntzan jarraipena osoa izan zela diote. Komertzioan, "salbuespenak salbuespen", denda eta tabernak itxita egon ziren, baita Eroski eta Simply ere. Aurreikuspen guztiak hautsi dituztela aitortu dute sindikatuek.

Industrian, enpresa gehienek ateak itxi zituzten ELA eta LABen arabera

ELA sindikatuko Uribarri Irigorasek dioenez, "hurrengo lehendakariari murrizketak ez aplikatzeko eskatu du gizarteak". LABeko Elate Zilonizaurrekoetxearen berbetan, greba arrakastatsua izan da eta jendeak kokoteraino dagoela erakutsi du: "Ermutik hasi eta Durangora arte enpresa gehienak itxita ikusi ditugu". ■ J. Guenetxea

Eguazten arratsaldean Durangon egindako manifestazioa.

Joseba Azkarraga

Teseoren greba

Greziar mitologian bada Procusto izeneko pertsonaia. Mendi aldean zeukan etxea, eta ostatua eskaintzen zion bidaiariari. Bidaiaria lo zegoela, ohera lotu ohi zuen. Altua bazen, Procustok ohetxikian lotzen zuen, eta zerrarekin mozten zizkion ohetik kanpo geratzen ziren gorputz zatiak: hankak, eskuak edo burua. Txikia bazen, ohe luzea ematen zion, ondoren ohera lotu eta hezurrak luzarazten zizkion mailukadaka.

Procustoren ipuina konformismoaren sinbolo bihurtu da. Eta azal dezake bizi duguna: inbertitzaileek eta bankuek (politikari askoren laguntza estimagarriarekin), euren neurriko ohea diseinatu dute, bertan etzanarazi dute gizartea eta gorputza anputatzeari ekin diote.

Ondorioz, aberastasunaren banaketa egundokoa gertatzen ari da. Asko daukatenak gehiago pilatzen ari dira, jendarteari kirurgia aplikatuz aitzurkadaka eta anestesiarik gabe. Ez dago Orakuluari geroaz galdetu beharrik: zuzen goaz gizarte pobreago eta injustuagora, jarraituz gero panpina puzgarri baten iniziatibarekin baietz esaten Procustoren ohean etzateari.

Beheraldia ezinbestekoa da, ordea. Mundu pobreagora goaz, eskasiak jotakora, ez dago beste aukerarik. Arrazoiak asko dira, eta Mendebaldeko finantza krisia ez da arrazoirik garrantzitsuena. Bestelako motiboek astinduko gaituzte oraindik bortitzago, prozesua hasita dago: krisi energetikoak, aldaketa klimatikoak, bioaniztasunaren galera masiboak, baliabide naturalen agortze hazkorrak... Eskasia halabeharrez dator, baina injustizia ez da halabeharra. Biharkoa mundu justuagoa izan daiteke. Beheraldia zelan antolatzen dugun. Autoantolatzen garen.

Ez da edozelakoa sistemaren bidegurutzea. Hazi ezean, zulora goaz. Haziz gero, zulora goaz. Sistematik kanpo pentsatzera behartuta gaude, beraz. Hazkundea eta kontsumoa ez den proiektuaz hitz egitera kondenatuta gaude. Beste guztia txiza egitea da haizearen kontra.

Nago grebalarien artean ere askok ez dutela barneratu oraindik: austeritate politika hauek txarrak dira aberastasuna banatzen delako asko daukatenei gehiago emanez; baina austeritatea da proiektu kontra-hegemonikoaren balio oinarrizkoena, etorkizuna eraikitzeko zimendua. Beheraldi antolatua, justua eta ekitatiboa da bidea.

Procustok luzaroan jarraitu zuen bere terrorea aplikatzen, Teseo heroiarekin topo egin zuen arte. Procustok seduzitu egin zuen, ohi zuen legez, baina Teseok, sedukzioan are txapeldunago, irauli zuen egoera: ohean etzateko konbentzitu zuen Procusto, bertan lotu eta aizkorakada moztu zizkion lehenbizi hankak, gero burua.

Teseok bere neurriko ohera ekarri zuen Procusto. Erabaki zuen utzi behar zitzaiola gizartea doitzeari ekonomiaren beharretara, ekonomia bera doitu behar zela giza premietara eta Lurraren neurrira.

"Arrakasta pertsonal eta kolektiboa da zahartzea"

Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna ospatuko dute jubilatuek astelehenean, herririk herri

Zahartzaroari buruzko estereotipo negatiboak ezabatu eta irudi positiboa zabaldu gura dute jubilatuek. Astelehenean, Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna ospatuko dute, eta aurkezpena aldarrikapenerako erabili dute: "Zahartzea arrakasta pertsonal eta kolektiboa da, are gehiago aktiboki zahartzen bada". Herritarrak horretaz sentsibilizatu gura dituzte, eta herririk herri antolatutako ekitaldietan parte hartzera gonbidatu dituzte.

Zahartze aktiboaren oinarriak garatzen laguntzeko deia egin diete agintariei

Gainera, zahartze aktiboaren oinarriak –partaidetza eta integrazioa– garatzen laguntzeko deia egin diete agintariei. Astelehenean udaletxeetan pankarta bat ipintzea eskatu dute, *Adin guztietarako gizarte baten alde* lemagaz. Xingola berdeak ere banatuko dituzte kalean.

Amankomunazgoaren laguntzagaz eratu dituzte ekintzak. Oskar Zarrabeitia presidenteak ere lazo berdea ipini eta integrazioaz egin du berba: "Guztiok gara garrantzitsuak gizarte honetan". Durangaldeko biztanleen %17 da 65 urtetik gorakoa. ■ M. O.

GARAI

Gripearen aurkako txertoa urriaren 4an emango dute

Osakidetzak joan zen astean ipini zuen martxan gripearen kontrako aurtengo kanpaina. Urria amaitu arte emango dituzte gaitz horren kontrako txertoak anbulategietan. Azaldu dutenez, Garain urriaren 4an egongo dira, eguerdiko 13:00etan. Medikuaren kontsultan ipiniko dituzte txertoak. Osakidetzak arrisku taldeetan daudenei egin die dei berezia: 65 urtetik gorakoek, diabetikoek eta bihotzeko, birikietako, gibeleko edo giltzurrunetako gaixotasun kronikoak dauzkatenek osatzen dituzte talde horiek.

Kontsulta, hasteko prest

Udako etenaldiaren ostean, mediku kontsultan zerbitzua ematen hasteko prest daude. Martitzen eta eguenetan egongo da medikua Garain, eguerdiko 14:00etan. Baina, ordua eskatu behar da aurretik. Berrizera joateko aukera ere badaukate garaitarrek. ■ M. O.

DURANGO

Futbol zelai berriaren plana geratzeko eskatu diote EAJri

Inbertsioen inguruko eztabaida eskatu dute Bilduk, PSE-EEk eta Aralarrek

Dani Maeztuk (lehen planoan), gobernu taldearen (bigarrenean) kudeaketaren aurka egin du.

Udalak Futbol 7ko zelai berria egiteko konpromisoa hartu zuen 2006an, eta partida bat ere gorde zuen horretarako. Sei urteren ostean, dekretuz erabaki du alkateak instalazio berria Tabiran eraikitzea. 300.000 euroko inbertsioa da. Bilduk, PSE-EEk eta Aralarrek plana geratzea eskatu diote gobernu taldeari (EAJ) mozio bidez. Abuztuan eta informatu barik erabaki izana kritikatu diote. Jon Bingen Landabidea (Bildu): "Webgunetik enteratu gara lizitazioaz". Gainera, 2006ko egoera ekonomikoa eta gaur egungoa berdinak ez direla-eta, beharrizanak aldatu direla uste dute. Horregatik, inbertsioen inguruko eztabaida zabaltzea eskatu dute.

Zelaia behar dela aitortu dute hiru alderdiek. Baina alternatibak lantzea gura dute. Pilar Riosek (PSE-EE), Tabirako zelaia Futbol 7rako ere egokitzea proposatu du. Inguruko herriekin tratuak egitea da beste aukera bat, Landabidearen ustez. Bide horietan saiatu direla adierazi du Goiztidi Diazek (EAJ), baina ezinezkoa izan dela irtenbidea topatzea, eta beharrizanak hor jarraitzen duela. Dani Maeztuk (Aralar) gobernu taldearen kudeaketaren aurka egin du. Udalaren soberakineko 13 milioietatik bederatzi erabili bako kredituak direla kritikatu du.

Mozioa onartu egin dute eskatzaileen botoekin. Baina, dekretuagatik, eskumena alkateak dauka. Beraz, oraingoz, proiektuak aurrera egingo du. ■ M.Onaindia

Zabor organikoa zelan aprobetxatu aztertuko dute, foro ireki batean

Bildu, PSE-EE eta Aralarrek bultzatu dute ekimena; EAJk ez du uste "foro paralelo" bat behar denik

Zabor organikoaren tratamenduaz foro berezia egitea onartu du udalbatzak, Bildu, PSE-EE eta Aralar alderdiek bultzatuta. Diotenez, bada sasoia atal organikoa zelan birziklatu pentsatzen hasteko. Durangoko zonalde edo auzo batean bilketarako esperientzia pilotu bat martxan ipintzea proposatu dute etorkizunerako aukera legez. Europako hainbat hiritan hondakinen %70etik gora birziklatzen dutela azaldu du Arrate Elkorok (Bildu). "Durangon, zaborraren %24 bakarrik birziklatzen dugu. Argi dago zeozer txarto egiten gabiltzala". Bizkaian, birziklatzen ez den guztia Zabalgarbi erraustegira eroaten dutela gogoratu du Dani Maeztuk (Aralar). "Eztabaidari uko egin zaio, atzean negozioa dagoelako". Zabalgarbin %60 interes pribatukoa dela dio, eta %40 publikokoa. Pilar Riosen ustez esperientzia pilotuak lagundu dezake egin beharrekoa argitzen.

Arrate Elkoro (Bildu): "Durangon zaborraren %24 bakarrik briziklatzen dugu"

Dani Maeztu (Aralar): "Eztabaidari uko egin zaio, atzean negozioa dagoelako"

Goiztidi Diazek (EAJ) esan du Tokiko Agenda 21eko foroa dela organikoaren tratamendua eztabaidatzeko gunea. "Ez dugu ikusten foro paralelo bat sortzeko beharrik". Elkorok adierazi du foro berezi bat behar dela horrelako gai bat lantzeko. Diazek, Bilduri eskatu dio Gipuzkoan ere zabaldu dezala hemen eskatzen duen eztabaida. ■ M. O.

"Bolantean, akatsak ez dauka atzera bueltarik"

Trafiko istripua ei da gazteen heriotza eragiteko kausa nagusia. Erabaki oker batek guztia aldatu ahal du: "Bolantean, akatsak ez dauka atzera bueltarik". Gogoetarako ikuskizuna eratu zuten astelehenean Trafpol (bide segurtasunaren aldeko poliziak) eta Stop Accidentes elkarteek. Istripuen lekukoek eta hildakoen senideek ikasleentzako egin zuten berba.

OTXANDIO

Banderen legeari erantzun bateratua eman gura diote

Banderen legea bete dadin administrazioarekiko auzien prozesua abiatu du Estatuko abokatutzak

Maiatzean EAEko Gobernuaren ordezkaritzaren gutun bat jaso zuen udalak. Banderen legea aplikatzeko eta Espainiakoa ere udaletxeko balkoian eta barruan ipintzeko eskatzen zieten. Harrez gero, bandera ipini duten konprobatzera hurreratu dira. Ez dago ipinita eta Espainiako Estatuaren abokatutzari jakinarazi diote. Abokatutzak administrazioarekiko auzien prozesua abiatuko du. Orain alde biek euren argudioak idatziz bidaliko dituzte Bilboko epaitegira eta auzitegi horrek epaia emango du. Ez dakite seguru prozesu horrek guztiak zer iraupen izango duen. Hilabete batzuk izan daitezke.

Santi Uribe alkatearen (Bildu) esanetan, "ez herritarrek eta ez herritarren ordezkariek ez dute eskatu bandera ipintzea, kanpotik etorri den agindua da". Horregatik, erantzun instituzional bateratu bat zelan egin hausnartzen ari dira. Eztabaida herri mailara ere zabalduko dute eta herritarren iritzia jaso nahi dute erantzun bateratua zelan osatu jakiteko. Oraindik ez dute erabaki prozesu horiek zelan gauzatuko dituzten. ■ J.D.

aisia LEKEITIO
H ★ ★ ★

Aisia Lekeitio Hotela
Santa Elena etorb, z/g
48280 Lekeitio
Tel.: 94 684 26 55
Fax: 94 624 35 00
lekeitio@aisiahoteles.com
lekeitiorestaurante@aisiahoteles.com
www.aisiahoteles.com

HAINBAT OPARI ZURE ESKU, EZTEI BANKETEA LEKEITIOKO AISIAN EGINEZ GERO, 2012KO URRITIK 2013KO OTSAILERA:

- Dj saioa bi orduz
- Eztei Gaurako Suite-a + "Jarri Eder" pakete termala
- Autobus bat, 55 lagunekoa, gonbidatuak garraiatzeko
- 2. afaria edo txokolate erretilukada
- Cava, brindiserako
- Lore apainketa pertsonalizatua, mahaietarako
- Menu pertsonalizatuak
- Argazki erreportajerako prezio bereziak + ezkontza gonbidapenak debalde

Gutxienez 50 pertsonako ezkontzak. Beste kopuru batzuetarako, baldintzak galdetu.

BI BONO GASTRONOMIKO ZOZKETAN AISIA LEKEITIO HOTELEAN

Noiz ospatuko dute San Migel Eguna iurretarrek?

BIDALI ZURE ERANTZUNA:
astekaria@anboto.org-ra edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera

ABADIÑO

Hamar nomina zor dizkie Abamotor enpresak beharginei

Langileek protesta egin dute: "Zor dizkiguten hamar nominak kobratu arte gu ez goaz inora"

"Enpresa desegiteko espedientea martxan ipini eta langileei zor dizkieten hamar nominak ordaindu barik 24 langile kaleratzea". Hori da, CCOO sindikatuaren arabera, Astolako Abamotor enpresaren zuzendaritzak daukan asmoa. Enpresa desegiteak 40 eta 55 urte arteko 34 langileri eragingo lieke.

Abadiñoko enpresa horretan hiru ordezkari dauzka CCOO sindikatuak. Jaime Intxausti ordezkariaren berbetan, "enpresak langileei zor dizkien hamar nominak kobratu arte ez goaz inora".

Enpresa desegiteak 40 eta 55 urte arteko 34 langileri eragingo lieke

Enpresak langileei zor dizkien soldatak ordain ditzala eskatuz, *Patricio: ordaindu zor duzuna... behar denean* lemadun pankartagaz kontzentrazioak egiten dituzte langileek goizero. Bestalde, joan zen zapatuan, Eibarren (gerentearen herrian) mobilizatu ziren euren soldatak ordain diezazkietela exijitzeko.

Mende erdiko historia dauka Abamotorrek, eta energia sorgailuak fabrikatzen ditu

Mende erdiko historia dauka Abamotor enpresak, eta energia sorgailuak egiten dituzte bertan. CCOO sindikatuak azaldu duenez, azken asteetan hainbat batzar burutu dituzte sindikatuetako ordezkariek eta Abamotor enpresako arduradunek. Hala ere, Jaime Intxaustik dioenez, langile batzuek sinatu dute: "Soldata jaitsiera eta lanorduen igoera onartu eta zorra ahaztearen truke lanpostua mantentzea". ■ I. E.

Goizero egiten dute protesta langile batzuek enpresa atarian.

ELORRIO

52 lagunek eskatu dute igerilekurako diru laguntza

Uda aurretik eztabaida sortu zuen Atxondoko igerilekuko prezioen igoerak. Atxondoko Udalak hitzarmen bat sinatu gura zuen Elorriokoagaz, instalazioetako gastuari batera aurre egiteko. Elorriarrek sarrera merkeago edukitzea izango zen ordaina. Baina ez ziren akordio batera ailegatu, eta elorriarrek kanpoko beste herrien prezio bera ordaindu beharko zuten. Egoera ikusita, Elorrioko Udalak diru-laguntza bidez finantzatzea erabaki zuen. Horrela,

Ordezkariek azaldu dutenez, 32 eskaera familiarrak izan dira; horietatik zazpi familia ugarikoak

herritarrek Atxondoko erabiltzaileen kuota bera ordaintzea lortuko zuten. Bada, uda pasata, kontaketa egin dute eta 52 eskaera jaso dituzte Elorrioko udaletxean. Hori kubritzeko, 1.554 euro inbertitu dituzte.

Ordezkariek azaldu dutenez, 32 eskaera familiarrak izan dira; horietatik zazpi familia ugarikoak. Bestalde, hamazortzi urtez azpiko hamabost gaztek aurkeztu dute laguntza eskaera. Ana Otadui alkateak adierazi du oso pozik daudela erantzunagaz: "Etxe-ekonomiak laguntzeko apustuagaz jarraituko dugu" ■ M. O.

Ehundaka herritar dantzan Iluntzeren urteurrenean

Joan zen zapatuan ospatu zuten Iluntze dantza taldearen 30. urterreneko jaia Traña-Matienan

Hiru hamarkadatan Iluntze taldean ibilitako dantzariak eta ehundaka herritar batu ziren zapatuko urteurreneko ekitaldian. Dena espero bezala atera ei zen, eta "primeran" pasatu zuten parte hartu zutenek. Orain hiru hamarkada Iluntze sortu zutenetik taldetik pasatu diren dantzariak elkartu ziren dantzan eta bazkarian, eta emanaldia ere eskaini zuten.

Angel Azkorbebeitia, Karmelo Oregi, Txaro Alberdi, eta Maite Gandiaga omendu zituzten

Iluntzeren 30. urteurreneko ospakizun ekitaldietara batu zirenek, egindako lan guztia eskertu zieten dantza taldea sortu zuten bost kideetako lauri: Angel Azkorbebeitia, Karmelo Oregi, Txaro Alberdi eta Maite Gandiaga omendu zituzten.

Izan ere, omenaldia jaso zuten lau lagunak eta Kepa Bengoa izan baitziren taldearen sorreran jardun zutenak: AEKren gau eskola batetik hasi ziren Iluntze dantza taldea izango zena osatzen. ■ I.E.

Familia argazkia egin zuten dantzari guztiek.

Zelaietako jantokiko arazoa plenora eroan du Bilduk

Udalak dirua aurreratzea proposatu du koalizioak

Zelaiteko eskolan jantokia txikiegi geratu da. Martitzeneko plenoko galdera eta eskarien tartean mahaigaineratu zuen gaia Saioa Zuazubizkar Bilduren zinegotziak: "Hainbat aldiz jardun dugu hemen Zelaieta eskolako jantokiko leku faltari buruz berbaz, baina errealitatea da zazpi ume jantoki barik geratu direla". Proposamena luzatu zuen Zuazubizkarrek: "Traña-Matienako erabilera anitzeko eraikinagaz egin zuten moduan, Zelaieta eskolako jantokian egin beharreko handitze obrak egiteko udalak iniziatiba hartu eta behar den dirua aurreratu dezala". Egoeraren "larritasunak" erabakiak azkar hartzeko beharra eskatzen duela uste du Bilduk.

"Proposamena dagokion batzordean eztabaidatuko dugu", erantzun zuen Jose Luis Navarro alkateak. ■ I.E.

ATXONDO

Memoria lantzeko ikastaroa hasiko dute eguenean

Atxondoko Lamiak elkarteak antolatu du

Atxondoko Lamiak emakumeen elkarteak memoria lantzeko eta askotariko izaerak eta nortasunak hobeto ulertzeko ikastaroa abiatuko du datorren eguenean.

Ikastaroa apirilera arte izango da, eguenero, 16:00etatik 18:00etara, udaletxeko udalbatzar aretoan. Izen-ematea Regina okindegian egin daiteke. Ikastaroa, emakume zein gizon, atxondar denei zuzenduta dagoela adierazi dute Lamiak elkarteko ordezkariek. Ikastaroa gai bitan banatuta dago. Batean, memoria hobetzeko teknikak eta trikimailuak erakutsiko dituzte. Bestean, nork bere burua hobeto ezagutzen eta besteen nortasuna ulertzen ikasteko teknikak landuko dituzte.

Bestalde, urriaren 19tik aurrera, film emanaldiekin hasiko dira berriro. Betiko lez, hileko hirugarren barikuetan izango dira, 18:30ean, udaletxean. ■ J.D.

MAÑARIA

Santa Ursulako jaia inoiz baino zabalagoa egin gura dute

Mañariko Ursula Donea jubilatuen elkarteak urriaren 21erako ekintza-sorta prestatu du. Urtero egiten dute jaialdia Santa Ursula Egunean, herriko zaindaria da-eta. Joan zen domekan batzarra egin zuten elkarteko bazkideek, eta jaialdia eratzeko beharrean ibili ziren. Irene Gorospe lehendakariak eta Isabel Etxanobe idazkariak azaldu dute inoiz baino jai zabalagoa egin gura dutela. Horretarako, jubilatuez gainera herritar guztiak ere gonbidatuko dituzte.

Meza eta dantzariekin hasiko dute urriaren 21eko jaia. Gero bazkari herrikoia egingo dute frontoian, eta 100 lagunen bueltan batzea espero dute antolatzaileek. Txartelak salgai ipini dituzte dagoeneko tabernetan; bazkideek hamabost euro ordaindu beharko dute eta kide ez direnek hamazortzi. Bazkalostean omenaldia egingo dute, eta erromeriagaz amaituko da ospakizuna. ■ M. O.

BERRIZ

Hondakindegia zigilatzeko lanak amaitu dituzte

Bizirik Betiko plataformako kideek kritikatu egin dute hondakindegi gainean parkea egin izana

Hondakindegia guztiz zarratu eta zigilatzeko lanak amaituta daudela informatu du Aldundiak. 2008an eten zuten hondakindegiko jarduera, eta 1994an zabaldu zutenetik 1.350.000 tona hondakin pilatu dituzte. Ingurua berreskuratzeko, zigilatu egin dute hondakindegia, urik barrura ez sartzeko, eta gai kutsakorrak izan ditzaketen lixibiazioak (kanporanzko filtrazio arriskutsuak) gerta ez daitezen.

Hondakinak isolatzeko lanez gainera, lurrazala berreskuratzeko lurra eta landaretza ipini dute. 20.000 metro koadro inguru aisialdirako atondu dituzte. Oinezkoentzako bidea ipini, eta umeen jolasetarako lekua utzi dute. Inguruko mendiak identifikatzeko mahai panoramiko bat ere ipini dute.

Durangaldeko enpresen hondakinak pilatu ziren hondakindegian, 1994tik 2008ra.

"Kontrol falta"

Joseba Fernandez Bizirik Betiko plataformako ordezkariaren ustez, hondakindegi gaineko lurra erabilpen barik geratu beharko litzateke. Denbora batera lurra mugitzeko arriskua dagoela ohartarazi du: "Hor ezin da ezer urbanistiko ez ludikorik eraiki".

Hondakindegira botatako hondakinen "kontrol falta" kritikatu du Fernandezek. 2006an piztutako sutea gogoratu du: "Hondakin inerteek ez dute sua hartzen". Eskola eta etxeetatik gertuegi egon dela ere esan du: "Bi kilometrora egon beharko litzateke, eta 500 metrora egon da". ■ A. Ugalde

Herriko belaunaldiak eta lekuak ezagutzeko, bi ibilbide domekan

Adin guztietako berriztarren hartuemanak indartu guran antolatu dute belaunaldi arteko irteera

Domeka honetan Berrizko auzo eta inguruneak bisitatzeko aukera bi egongo dira: belaunaldien arteko irteera eta, San Migel jaietan, Okango auzotik irtenda, baselizaz baseliza egingo duten ibilibidea.

Belaunaldi arteko irteerarako, ordu bi eta erdiko ibilbidea prestatu dute, adin guztietako jendeak erraz egiteko modukoa. Helburua berriztarren arteko hartuemanak sustatzea da. 09:30ean BBK aurrean ipini dute irteera ordua eta Olabe, Luzar eta Urtia bisitatuko dituzte.

Okangoko jaiak gaur iluntzean hasiko dituzte donien atxa altxatu eta odoloste janagaz

Auzoko jaietan, baselizetara

Okango auzoko jaiak gaur iluntzean hasiko dituzte donien atxa altxatu eta odoloste janagaz. Domekan, auzotik irtenda Berrizko baselizak batzen dituen ibilbidea egingo dute. Mikel Deuna ermitan 07:15ean hasiko dute inskripzioa, eta 07:45ean irtengo dira.

Bihar Iremiñe dantza taldearen emanaldia, txirrindulari lasterketa eta bolo txapelketa izango dituzte, besteak beste, eta etzi, mezaren ostean, Xabier eta Miren Amuriza aita-alabek bertso saioa eskainiko dute. ■ A. U.

IZURTZA

Frontoiari beste estalki bat ipiniko diote, itoginengatik

Orain duenaren gainean ipiniko dute berria; azken aldiko haizeteek lanak atzeratu dituzte

Izurtzako pilotalekuak hainbat itogin ditu. Horrez gainera, tenperatura aldaketak daudenean, teilatuan kondentsatzen den ura tantaka erortzen da kantxara. Horregatik, estalki berri bat ipiniko diote, orain duen estalkiaren gainean. Dagoeneko material berria teilatuan dago, baina oraindik lanak ezin izan dituzte amaitu, azken aldian hainbat egunetan egon diren haize gogorrengatik.

Frontoiak beste aldaketa batzuk ere izan ditu. Hamargarren koadrotik errebotera arteko tartea itxi egin dute, behetik goraino. Aurreko koadroak ixteko erabilitako materiala erabili dute atzean ere. Teilatua estaltzeko eta frontoi zatia zarratzeko 22.000 euro erabili dituzte; Bizkaiko Aldundiak 10.500 euroko laguntza eman du.

Udaletxea pintatu dute

Mantenu lanen barruan, asteon udaletxeko fatxada more argiz pintatu dute egitura orokorragaz eta harriagaz ondo datorren kolorea ei delako. Laster, jubilatuen elkartea, Argintxu elkartea eta osasun zentroa dauden eraikinaren hormak zuriz pintatuko dituzte. ■ J.D.



Durangaldean labur

Durangoko markaren gainean bozkatu ahal dute herritarrek

Durangoko Hiri-Marka aukeratzeko, herritarrek hiru ereduren artean bozkatzeko aukera dute liburutegiko sarreran ipinitako stand batean, zapatura arte. Iritzi hori ez da erabakiorra izango; %20ko balioa edukiko du.Ereduak sortzeko Durangoko ingurunea, ohiturak edota pertsonaiak hartu dituzte kontuan. Esaterako, bi eredu egiteko, kaligrafo izandako Juan de Iciarren irudi bat hartu dute oinarri.

Etorkinentzako atala sortu dute euskararen gidan

Euskara ikasteko eskualdean dauden aukera eta baliabide guztiak jaso, eta etorkinen inguruko atal berri bat gehitu diote Amankomunazgoak indarrean duen *www.euskaragida.com* webguneari. Atal horretan zazpi hizkuntzatan irakurri daiteke eskaintza osoa. Hauek dira hizkuntzak: euskara, gaztelera, frantsesa, ingelesa, errumaniera, txinera eta arabiera.

Elikagai ekologikoen topaketa Durangon

Larunbatean elikagai ekologikoen inguruko topaketa egingo dute Durangoko Plateruena kafe antzokian. 11:00etan, askotariko ekimenen aurkezpena egingo dute. 13:00etan ardo dastaketa egingo dute Roberto Sarriugarterekin. Azkenik, 14:30ean, herri bazkarian batuko dira.

Begiraleen gaineko ikastaroa urrian

Durangaldeko Amankomunazgoak eta Urtxintxa eskolak aisialdiko begiraleei zuzendutako ikastaro bi antolatu dituzte urritik aurrerako. Ikastaroa doakoa da eta formakuntza euskaraz jasoko dute. Gehienez 40 lagunek parte hartu ahalko dute. Info gehiago: *www.mdurango.net*.

IURRETA

Txapligu hots artean, gaur hasiko dituzte sanmigelak Iurretan

Donien atxa igoko dute arratsaldean iurretarrek, eta bihar ospatuko dute jaietako egun handia

Ohiturari eutsita Montoian batuko dira iurretarrak gaur, eta txapligu hots artean hasiko dituzte San Migel jaiak. Errosario Eguna heldu bitartean, ekitaldiz josita zazpi egun dituzte aurretik. Biharkoa da egun handia: San Migel Eguna. Askotariko ekitaldiak batzen dituen egitaraua osatu du Jai Batzordeak, eta parte hartzeko gonbitea luzatu du: musika, antzerkia, dantzariak, lehiaketa gastronomikoak, umeen jolasak eta nekazaritza eta artisautza azoka egongo dira datozen egunotan. Mozorro Egunerako, herria zoologiko bihurtzeko deia egin du Jai Batzordeak.

Desafioan, Garai nagusi

Jaiak hasi aurretik ere egon da zer ikusi aurreko egunetan. Besteak beste, herri kirol desafioa antolatu zuen Jai Batzordeak, eta aurten lehenengoz, neskek ere parte hartu dute. Azkenean, Garai nagusitu zen: ia 500 kiloko harria mugitzerakoan lau untzako aldea atera zieten iurretarrei. Neskek ere ez zuten lan makala egin: 34,5 untza eta 1,95 metro egitea lortu zuten. Hamabi neskak osatutako taldeak ekin zion harria mugitzeari. Guztira, hamazazpi neska hurreratu ziren, eta txandaka aritu ziren harriari tiraka. Hor sortu zen jai giroak eutsi egingo dio egunotan herrian. ■ A. Basauri

Jaien aurrekari, herri kirol desafioa egin zuten joan zen asteburuan, Olaburu frontoiaren aurrean.

Mozorro Egunerako, herria zoologiko bihurtzeko deia egin du Jai Batzordeak

Gazteek etxea alokatzeko diru laguntza emango dute

Aurten laugarrenez, gazteek etxebizitza alokatzeko diru laguntzak emango ditu udalak. Herrian erroldatutako 18tik 35 urtera arteko gazteek udaletxean hartu ahal dituzte eskaera orriak, urriaren 1etik 30era. Emantzipatzen laguntzea da helburua, eta etxebizitza alokatzeko aukera herrian bertan edukitzea. Hileko alokairuaren %50 ordainduko du udalak, 250 eurora arte, gehienez. Iaz hiru gaztek lortu zuten laguntza. ■ A.B.

ZALDIBAR

Urriaren 5etik aurrera zabalduko dute Gaztelekua

Hamabi-hamasei urte artekoentzat izango da

Olazar futbol zelai zaharreko lokaletan, Gaztelekuan elkartuko dira hamabi eta hamasei urte arteko gazte zaldibartarrak asteburuetan. Elkartzeko, eta espazio hori elkarrekin hainbat ekintza antolatu eta burutzeko baliatu dute azken urteetan hainbat gaztek. Urriaren 5ean, berriro egongo da martxan.

Gaztelekua, "euskal giroan egoteko, ikasteko eta primeran pasatzeko txokoa da". Eta bertako kide izateko baldintza bakarra dago: euskaraz jardutea bertan.

Gaztelekuan ez dago izena eman beharrik ikastaroak jasotzeko edo antolatzeko, ezta bestelako ekimenak elkarrekin gozatzeko ere. Barikuetan 17:00etatik 20:30era egongo da zabalik, eta zapatu eta domeketan 16:30etatik 20:30era. ■ I.E.

MALLABIA

Ortu ekologikoen araudia aho batez onartu du udalak

Hogei partzela egokituko dituzte Malle-azpin

Martitzenean Mallabiko Udalean egindako osoko bilkuran, Malle-azpiko ortu ekologikoen araudia aho batez onartu zuten. Adostutako araudiak azaltzen duenez, 60 metro koadro inguruko hogei partzela egokituko dituzte eta ortuen titularrak Mallabikoak izan beharko dira. Kontzesioa lau urterako izango da eta nekazaritza ekologikoaren printzipioen arabera landatu beharko dira ortuariak. Sasoiko landareak baino ezingo dira landatu eta lortzen diren produktuak etxeko kontsumorako izango dira, hau da, ezin dira saldu. Erabiltzaileek elkarte bat sortu beharko dute ortuen zaintzaz eta mantentzeaz arduratuko dena eta Mallabiko Udalarekin harremanetan egongo dena egunerako kudeaketarako. ■ J.G.

NACEX
San Roke, 12 behea (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62
Mug.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es
Informazio orokorra: 900 100 000

Durangaldeko Baserritarren Elkartea


DBE
Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

BERBAZ >

“Konturatu barik, erakunde bati dirua utzi diogu, bueltarako epe barik”

Aurrezteko asmoz, lehentasunezko partizipazioak egin dituzte hainbat herritarrek; engainatuta sentitzen dira

Begoña Mañaricua, zutik; atzean ADICAEko beste kide batzuk ditu.

Begoña Mañaricua •

- Elorriarra
- Partizipazio preferenteak hartu eta Adicae bankuen erabiltzaileen elkartera jo du partizipazio preferenteen auziagatik

Dirua aurrezteko produktu segurua zela eta hainbat banku eta aurrezki kutxek lehentasunezko partizipazioak egitera bultzatu dituzte bezeroak. Partizipazio horiek akzio eta errenta finkoen arteko produktuak dira. Bankuen kapitala osatzen dute, eta bueltan jasotzeko, finantza erakundeak bueltatu edo norberak saldu behar ditu. Diru hori eskuragarri izango zutela esan zieten Begoña Mañaricua elorriarari eta beste milaka bezerori. Ez da horrela izan.

Zer informazio eman zizuten lehentasunezko partizipazioei buruz?

2009ko ekainean Elorrioko La Caixako zuzendariak proposamena egin zigun, epea amaitzen zitzaion epe finko bat partizipazio preferenteetara aldatzeko. 35.000 euro genituen bertan. Nik esan nion pisu bat konpontzeko behar nuela diru hori, eta horregatik gauza seguru bat gura nuela. Bost urteko kontratua egingo genuela esan zigun. Normala baino interes altuxeagoa edukitzen dute. Niri lehen bi urtetarako %6koa edukiko nuela esan zidan. Dirua gura genuenean atera ahalko ote nuen galdetu nion, eta zuzendariak baietz esan zidan, hamabost egun aurretik abisatuta zati bat edo osorik jasotzeko aukera geneukala. Ez zigun arriskuei buruzko informaziorik eman.

> “Dirua gura nuenean atera ahalko ote nuen galdetu nuen, eta zuzendariak baietz esan zidan, hamabost egun aurretik abisatzeko”

Kontratuan ‘betiereko iraungitzea’ kontzeptua agertzen zen. Zer esan gura du horrek?

Irakurri nuen, baina ni egun horietan oso lanpetuta nenbilen, eta ikusi arren ez nintzen zer esan gura zuen pentsatzen egon. Konfidantza nuen bulegoko zuzendariarengan. Batzuri azaldu zieten *betiereko* horrek zera esan gura zuela; ez zegoela zertan kontratua berriztatzen ibili. Edonoiz atera ahalko genuela esan ziguten denoi. Baina, *betiereko* horrek esan gura du bizitza guztirako dela eta eurek gura dutenean bueltatuko digutela dirua. Egunkarian artikulu bat irakurri eta gero, La Caixako zuzendariarengana joan nintzen, ea nire dirua atera ahal nuen galdetzeko. Ezetz esan zidan.

Esan zizutena eta kontratuak esan gura duena desberdina da.

Bai, eta ez dago ezelango frogarik gainera. Kasu askotan produktu horiek saldu dituzten pertsonak beste bulego batera aldatu dituzte. Adicae elkartean batu garen erabiltzaileok uste dugu bezeroekin arazo pertsonalak ez izateko egiten dutela hori. Dirua jasotzeko bide bakarra partizipazio horiek salgai ipintzea da, bigarren mailako merkatu batean. Baina nork erosiko dizkigu, orain, zer diren gizarteratu denean? Orain salduz gero, gainera, euren balioaren %30ean salduko lirateke.

Beste konponbiderik-edo eman dizute bankukoek?

Beste produktu batzuk eskaini dizkidate. Diruaren %70 menpeko obligaziotara aldatu dut (hamar urteko epean jaso dezaket) eta beste %30, akzio bihurtu behar diren obligazioetara. Obligazioak akzio bihurtzeko aukera 2015era arte daukagu. Hasieran derrigorra zen diru horren erdia aurten akzio bihurtzea, baina nahiko baxu dabiltzanez, 2015era arte daukagu aldatzeko aukera, sei hilean behin.

Adicae elkartera jo duzu. Kaltetu asko zaudete bertan?

Uste dut EAEn 7.000 kaltetu inguru daudela. Astero batzartzen gara eta presioa egiten ari gara. Kaltetuok salaketa kolektiboa prestatu dugu hainbat erakunderen kontra: La Caixa, CAM, Euskadiko Kutxa, BBVA, Santander... Kontratuak baliogabetzea eskatu dugu. Baliogabetuz gero, gure dirua eta Espainiako Bankuak ipintzen duen gutxieneko interesa ordaindu beharko ligukete, eta guk eurek ipinitako interesak eman beharko genizkieke.

> “Kaltetuok salaketa kolektiboa prestatu dugu hainbat erakunderen kontra”

> “Gure dirua hirigintza lan erraldoietara bideratu dute”

Eta galdera da: non dago zuen dirua?

Aurrezki kutxek, akziorik ez dituztenez, produktu hauek dituzte finantzaziorako. Sukurtsal bakoitzean produktu kopuru bat saltzeko agindua izan dute. Arazoa zera da; hirigintza lan erraldoiak finantzatzen jardun dutela. Gure dirua horretara bideratu dute. Produktua legala da baina bezeroei eman diguten informazioa engainagarria izan da. Konturatu barik, erakunde bati dirua utzi diogu, bueltarako epe barik, eurek bueltatu gura diguten arte. Hori kontzienteki ez du inork egiten. Orain, gainera, Europara begira kutxek eta bankuek euren solbentzia zaindu behar dute, eta gure diru hori beharrezkoa zaie horretarako.

Itxaropentsu zaudete?

Etsitzen bagara ez dugu ezer lortuko. Jendearen interesa piztu du behintzat gai honek, eta guri borroka egitea baino ez zaigu geratzen. Hazten dabilen desprestigioak kaltetu egiten ditu. Taldean elkartasun giroa sortu da, eta geroago eta gehiago batu, orduan eta hobeto izango da. ■ A.Ugalde

IRRIEN LAGUNAK KLUBA
HARPIDETU ZAITEZ ! URTEAN 45 € (10 ALE)
IRRIA ALDIZKARIA, URTE OSORAKO EGUZKIA!
IRRIA
HARPIDETZAREN ABANTAILAK:
* HILERO JASO ALDIZKARIA ETXEAN
* JASO KLUBEKO TXARTELA.
DESKONTUAK, SARIAK,
ZOZKETAK ETA ABAR.
* KLUBEKO PULTSERA OPARI
* % 20 MERKEAGO!
IRRIEN LAGUNAK KLUBA
BAZKIDE ZBKIA
005489
IZEN-ABIZENAK
AIORA AMANTEGI ZUBIKARAI

@anbotokultura

KULTURA>

AISIALDIA> EUSKARA

Haurren aisialdia euskaragaz lotzeko, elkarlan irribarretsua

Berbaro euskara elkarteko eta Irrien Lagunak klubeko kideek elkarrekin lan egingo dute Olgetan proiektuan: bost ikuskizun eskainiko dituzte datozen hilabeteetako lehenengo domeketan, Plateruena kafe antzokian

Erika Uranga, Oihane Barrutia, Porrotx eta Iñigo Arandia, Plateruneko aurkezpenean.

Irrien Lagunak klubagaz bat eginda antolatuko dute 2012-2013 ikasturteko Olgetan programa Berbaro euskara elkarteak eta Plateruena kafe antzokiak. Hilean behin, lehenengo domekan, umeentzako ikuskizun bana antolatuko dute. Aurtengoagaz, zazpigarren aldia da Berbarok eta Plateruenak Olgetan programa lantzen dutena.

Berrikuntza hau da: orain arte bezala asteburu bakoitzean askotariko emanaldiak eskaintzen zituen talde bat gonbidatu beharrean, Irrien Lagunak klubagaz egingo dituzte emanaldi guztiak, Berbaroko arduradun Oihane Barrutiak azaldu duenez: "Irrien Lagunei lotuta eskainiko ditugu aurten Olgetan egitasmoaren asteburuko ekitaldiak, euren helburuak gureekin bat datozelako, eta gero guk ludotekan lantzen ditugulako umeek Irrien Lagunak klubean lantzen dituzten gai horiek".

> Oihane Barrutia (Berbaro): "Irrien Lagunen helburuak gureekin bat datoz"

Euskal Herriko haurrak, gurasoak, hezitzaileak eta elkarteak bildu gura dituen kluba da Irrien Kluba: "Gure haurrak elkarrekin era dibertigarrian eta euskaraz hezteko helburua eta ikuspegi hezitzailea du".

IKUSKIZUNAK

Abenduak 2
Eguzkiaren bidaia

Urtarrilak 6
Kultura plazara

Otsailak 3
Laguntasunaren sekretuak!

Martxoak 3
Mundutik plazara, plazatik mundura!

Apirilak 7
Irrien lagunekin kanta eta dantza

Hileko lehenengo domekan, 17:00etan, Plateruenean

Durangoko Plateruenean egin zuten, atzo, elkarlan horren aurkezpena. Irrien Lagunak klubeko Porrotxek eta Iñigo Arandiak, Berbaro elkarteko Oihane Barrutiak eta Plateruneko Erika Urangak egin zuten ekimenaren aurkezpena. Bost ikuskizun eskainiko dituzte Olgetan programaren barruan. Hileko lehenengo domekan,Plateruenean izango dira bost hitzorduak, 17:00etatik aurrera. Pirritx eta Porrotxen filosofiatik jaiotako ikuskizunak bostak: osasuna, natura, zientzia, kultura eta elkartasunari loturiko gaiak.

Abenduaren 2rako antolatu dute lehenengo emanaldia, Durangoko jaien osterako, eta apirilean izango da azkenengoa. Azaldu digutenez, gainera, apiril edo maiatzean ekimenari "amaiera emateko jaialdi bat" antolatzeko asmoa ere badarabilte buruan.

Bestalde, Irrien Lagunak proiektua finantzatu ahal izateko harpidetza kanpaina abiatu du Irrien Lagunak Klubak. Artikulu honen alboko orrian dago harpidetza egiteko informazio zabalagoa. Euskal Herriko hainbat herritan ari dira kanpaina zabaltzen, eta Durangaldean ere ekimen honen bitartez harpidetza berriak lortu gura dituzte. Porrotxen berbetan, "proiektu hau bultzatuko duten lagunak behar ditugu; laguntza eskatzen dugu, baina eskaintza zabala egin ere bai".

> Irrien Lagunak klubaren harpidedun egiten direnek bonoa doan lortuko dute

Irrien Lagunak klubaren harpidedunek Olgetanerako sarrera guztien bonoa doan lortuko dute, eta Berbaro elkarteko edo Irrien Lagunak klubeko kide direnek, gainera, bonoa merkeago eskuratu ahalko dute. ■ I.E.

"Txikitan olgetan, handitan benetan"

Berbaro Euskara elkarteak eta Plateruena kafe antzokiak bultzatuta, 2005an ipini zuten Olgetan programa martxan. Ehundaka ume hartu dituzte urte horietan antzokian.

Jolaserako eta hainbat tailerretan parte hartzeko espazioa da astegunetako Plateruneko Olgetan ludoteka.

"Euskaraz komunikatzeko eta egunero euskara erabiltzeko egoera eta gune egokiak sortzea", hori da ekimenaren bultzatzaileen helburu nagusia. Esaldi batek laburbiltzen du zertarako: "Txikitan olgetan, handitan benetan, orain eta gero, euskaraz berbetan".

Iaz Plateruneko anfiteatroan atondu zuten ludoteka, baina lekuz aldatuko dute ikasturte honetan: espazio egokiagoa delakoan eta bertan tailerretarako txokoak atontzeko aukera hobea dagoelakoan, eszenatokira eroango dute ludoteka berriro.

Gainera, astean behin gai zehatzei buruzko tailerrak egingo dituzte. Esan dutenez, oso harrera ona eduki zuten ekintza tailerrek: sukaldaritza, bitxigintza eta abar.

Astelehenetik eguaztenera, bi orduz (17:00etatik 19:00etara) eskainiko dute aurten ere Olgetan ludoteka Plateruenean, urriaren 29tik aurrera.

Doako eskaintza da, irekia, hiru eta zortzi urte arteko umeei zuzendua.

Ez dago izena eman beharrik: hurreratu gura duenak bertaratu baino ez du. Berbaro elkarteko hezitzaile birekin hasiko dute ikasturtea.

berbaroko umeak Olgetan

ANTZERKIA>

Pablo Puyol, Mar del Hoyo eta Jorge Sanz dira *Crimen Perfecto* obrako antzezleak.

Hitchcocken zinemagintza omenduko dute San Agustinen

'Crimen Perfecto' filmaren antzerkirako moldaketa eskainiko dute Durangoko kulturgunean

Atsedenaldia kontuan hartuta, ordu biko iraupena daukan antzezlana izango da ikusgai, irailaren 30ean, Durangoko San Agustinen: *Crimen Perfecto*. Frederick Knott antzerkigileak idatzi eta Alfred Hitchcock zinema zuzendariak ezagun egin zuen lana du oinarri.

Txalo Producciones taldeak ekoitzi du, baina, Victor Condeen antzerkirako moldaketa da, zinemaren eta antzerkiaren lengoaiak eta baliabideak, biak uztartzen dituena. Hitchcocken begirada omendu gura izan du Condek: "Antzerkiari, narrazioari eta zineari buruz dakidana Hitchcok-engandik ikasi dut".

Jorge Sanz, Mar del Hoyo, Pablo Puyol, Antonio Albella eta Jose Sanchez-Orosa aktore ezagunak dira obrako antzezleak.

Ron Lalá-ren bisita

Bestalde, umore kritikoa, antzerkia eta musika ekarriko du Ron Lalá taldeak, beste behin, Elorrioko Arriola antzokira. *Time al tiempo* ikuskizunarekin datoz oraingoan, Yayo Cáceresek zuzendutako obragaz. Antzerkia eta musika uztartzen maisuak diren bost artista izango dira urriaren 5ean, Arriolako oholtzan. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Arantza Arrazola
Maider Larrañaga
San Agustin kulturgunea

BEZaz

Udan ez omen da fundamentuzko albisterik sortzen, BEZaren igoerak, ordea, bazterrak harrotu ditu, bereziki kulturgintzan, eta asko izan zarete antzerkiari zelan eragingo dion galdetu diguzuenak, hara ba:

Antzoki publikoei, San Agustin bezalako tokiei, kontratazio prezioa garestituko zaie, konpainia profesionalen katxeari ezartzen zaion BEZa %18tik %21era igo delako, gainontzeko kontsumo ondasunen antzera, eta edozein etxetan bezala, gastatzeko gaitasuna murriztuko zaigu.

Konpainiei dagokienez, neurri honek kultur elkarte gisa izena emandako taldeak kaltetu ditzake bereziki, %8ko BEZa kobratzetik %21 kobratzera pasatuko direlako, euren katxean igoera nabarmena eraginez.

Publikoari dagokionez, udal antzokien sarreren prezioan ez da igoera sumatuko, udal ordenantzetan jasotako prezio publikoak direnez, tasak ezartzen baitzaizkie zergak ezarri beharrean.

Bestelakoa da teatro pribatuen egoera, batez ere, hiriburuetako antzoki handietakoa, normalean konpainia eta aretoaren arteko tratuan txarteldegiko diruarekin jokatzen baita, hau da: antzokiak ez du katxerik ordaintzen aretoa doan uztearen alde, eta konpainiak beretzat hartzen du sarreren diru osoa, edo gehiena. Orain arte, konpainiak %8ko BEZa deskontatzen zion takilako diru poltsari, orain baina, %21, horrek esan nahi du lan berberaren truke duela hilabete baino %13 gutxiago eskuratuko duela. Musikariek bezala, kontzertuetako areto gehienak pribatuak direnez, halaxe lan egiten dutelako.

Ziur gaude sektoreari ez litzaiokeela inportako zerga horiek banketxeek eragindako zuloa tapatu beharrean pertsonon ongizatean eragina izango balute. Dena den eta hala ere, ametsak irudikatzen jarraituko dute, beraientzat gure miresmenik zintzoenetik, Bejondeiela!

KOLABORAZIOA Mikel Onandia

Eskultura eta literatura, Victor Arrizabalagaren lanean bat eginik

Eguenean, 'Beste liburu batzuk' erakusketa ipiniko du eskulturagile mañariarrak, Bilbon

Tximiniatik zentzu gabeko berbaroa darien koloretako etxeak, letraz bustiriko aterkiak zein orotariko objektuak biltzen dituzten liburuak. Victor Arrizabalagaren (Mañaria, 1957) azken pieza eskultorikoak dira.

Metala (altzairua) eta kolorea (bizitasun handikoa) pop ikuspegitik eta modu pertsonalean garatzen du, ironia puntu finarekin. Lehen aldiz gauzatu du serie handi bat gai konkretu batekin, liburuaren eta letren mundua.

Modu batera edo bestera (testuak idazteko eskulturak bidaliz, edota testu jakin bat abiapuntu hartuta piezak eginez), punta-puntako hamar idazlerekin kolaboratu du: Joseba Sarrionandia, Juan Carlos Mestre, Kirmen Uribe, Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Kepa Murua, Mikel Varas, Leire Bilbao eta Unai Iturriaga. Eskulturekin batera poesia, ipuinak zein prosa surrealista aurkituko du bistariak erakusketan eta katalogoan.

> Eskulturekin batera poesia, ipuinak zein prosa surrealista

> Bilboko Foru Liburutegiko Areto Noblean egongo da

> Lehen aldiz gauzatu du serie handi bat gai konkretu batekin

> Punta-puntako hamar idazlerekin kolaboratu du

Oraindino aro digitalera guztiz salto egin ez duen liburuari (objektu eta fetitxe lez) egindako omenaldi poetikoa da erakusketa, oso erakargarria bisualki, irakurketa anitzekoa literatura bera lez, eta gogoeta metaliteraturara gonbit egiten duena.

Beste liburu batzuk Bilboko Foru Liburutegiko Areto Noblean egongo da, datorren eguenetik aurrera. ■ I.E.

ZINEMA> EMANALDIAK

Sarri ezkutuan geratzen diren errealitateei begira Elorrion

Astean zehar lurretan ere eman dituzte Filme Sozialak jaialdiko pelikulak eta dokumentalak

Kultura Communication Desarrollo GKEak bultzatzen du Filme Sozialak. Ekimeneko lanak Elorrioko Arriola antzokian eskainiko dituzte bihar, domekan eta astelehenean. Gaur, Bilboko Alhondigan egingo dute jaialdiaren inaugurazio ekitaldia.

Jaialdi horren laugarren ediziora aurkeztu dituzten 300 lanetatik 55 hautatu dituzte aurten, eta horietariko batzuk izango dira ikusgai Elorrion.

Munduari eta normalean ezkutuan edo isilpean geratzen diren errealitateei buruzko irudiak ikusteko aukera eskainiko diete Arriolara gerturatzen direnei. Luzera, formatu eta genero anitzetan izango dira filmak ikusgai.

Esaterako, David Segarraren *Fuego sobre Marmara* filma emango dute bihar, 22:30ean, Gazara laguntza humanitarioa zeraman Askatasunaren Ontziari Israelgo armadak 2010ean egindako erasoaren kontakizuna.

Domekako filma, *Otra noche en la tierra,* Cairo barruko bidaia da, iraultzak astinduriko Egiptoko hiriburuan barrena. Gauez eta taxian eroango du ikuslea David Muñozek, Malagako zuzendariak. Taxian sorturiko giro berezia islatzen du dokumentalak. Iraultzari, eta emakumeari eta erlijioari buruzko hainbat aurreiritzi apurtuko ditu, filmak irauten dituen 52 minutuetan.

> Ezkutuko errealitateei buruzko irudiak ikusteko aukera eskainiko dute

> Luzera, formatu eta genero anitzetan izango dira filmak ikusgai

Animazioak eta laburrak

Aipaturiko dokumental luze bi horiez gainera, beste zazpi film gehiago ere emango dituzte asteburuan: Argentinan ekoitziriko *Soy Juana* animazio lana; bi minutuko *El mueble de las fotos* film laburra; Miriam Herrero zuzendari mexikarrak aurten sortutako *2012 jaque Maya* dokumentala; edota Miguel Gallardo marrazkilariaren *Maria y yo* komikia oinarri duen *El viaje de Maria* autismoari buruzko animaziozko lana emango dute. ■ I.E.

LITERATURA> IRAKURZALETASUNA

Umeentzako irakurketa klubak eskainiko dituzte Durangon

Txomin Magdalenak eta Saroa Bikandik gidatuko dituzte umeentzako irakurketa taldeak

Saroa Bikandik eta Txomin Magdalenak gidatuko dituzte Durangoko udal liburutegiko irakurketa klubak. Saroa Bikandik gidatuko ditu irakurketa taldeetako bi: hiru eta bost urte artekoena, eta bost eta zazpi urte artekoena. Bikandik azaldu duenez, "txikiak direnez, gurasoekin etorriko dira, eta ordu beteko saioak egingo ditugu". Ipuinak, poemak, askotariko istorioak bizi eta jolastea izango da helburua.

> Ipuinak, poemak, eta askotariko istorioak bizi eta jolastea da helburua

Gainera, gurasoei seme-alaben irakurzaletasuna sustatzeko baliabideak ere eskaini gura dizkiete. Irakurtzeko desioa eta gustua kutsatu gura diete umeei, eta liburutegirako motibazioa piztu.

Txomin Magdalenak gidatuko du, bestalde, zortzi eta hamabi urte arteko irakurleen taldea: "Irakurle autonomoak direnekin jardungo dut nik". Irakurriz gozatzera, eta "gozamena konpartitzera" gonbidatuko ditu parte-hartzaile gazteak. Jolasaren edo marrazketaren bitartez, adibidez, literaturako hainbat genero landuko dituzte.

> Dagoeneko eman daiteke izena irakurle klubetan parte hartzeko

Dagoeneko eman daiteke izena umeen irakurketa klubetan parte hartzeko. Urriaren 10ean, azaroaren 14an eta abenduaren 19an izango dira zortzi eta hamabi urte artekoen saioak; eta hileko hirugarren zapatu goizetan, hiru eta zazpi urte artekoenak.

Espazioak berrantolatuta

Hiruhileko honetarako programazioaren aurkezpenean Jon Kepa Garro zinegotziak esan duenez, ikasturte berrirako "liburutegiaren barne funtzionamenduari loturiko espazio aldaketa batzuk" egin dituzte. Horrela, beheko solairu osoa umeen liburutegiari eman diote: orain arte hemeroteka zegoen lekuan haur txikien gela atondu dute. Izan ere, aurkezpenean azaldu dutenez, liburutegiaren erabiltzaileen %30 dira zero eta hamabi urte arteko umeak, eta eurei eskainiriko zerbitzua hobetu gura izan dute.

Aipaturiko umeentzako irakurketa klub berriez gainera, Jon Kepa Garrok esan duenez, "dagoeneko urteak daramatzaten ipuin kontalariek eta irakurketa klubek martxan jarraituko dute". ■ I.E.

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Uda lehorra izan bada ere, mendiko zelaiak ‘berde’ ikusi ditugu

Irailaren 22an, larunbata, Iurretako III. Mendi martxa burutu zen, Zaldai mendi taldeak San Migel jaien barruan antolatua.

Eguraldia lagun, jende mordoxka batu zen Durangaldeko mendietan zehar, kasuan-kasu, luzeraren arabera aukeratutako ibilbideaz gozatzeko prest.

Ibilbide luzekoak, eguzkiari aurre hartuz, goizeko 7:00etan irten ziren plazatik, eta laburrekoak beranduxeago. Batzuek Urkiolamendi, Saibigain eta Errieltabasoko tontorrak zapaldu ostean eta besteek Mendiolatik Mañarirako bidea hartuz, Inunganen zuten baterapuntua. Bertan hornidura gunea zegoen kokatua, Leunganeko tontorrera igo aurretik indarberritzeko.

Behin bolondresek hornidura gune hau montatuta eta lehen mendizaleak noiz helduko itxaroten zeudela ezusteko bisita jaso zuten. Txorien kantua isilarazi nahian, zarata artean bi motor eta lau todoterreno berde ilun horietakoak azaldu ziren bertara. Agian bolondresei martxalarien kontrola egitera laguntzen zetozen, ta horrela zen gertatu, ondo lagundu ere. Bananbanan bolondres eta mendizaleei dokumentzioa eskatu, eduki ezean papertxo bat betearazi, eta maltzurkeriz josítako galdera inozoak jaurti zituzten. Bidean inor ez galtzeko eta beraien kontrol gune bihurtu zuten hornidura gunetik denak pasa zitezen ere makina bat buelta eman zituzten bazterrak nahasten.

Ez da lehenengo aldia berdez jantzitako hauen esker ona pairatu behar izan duguna. Pasa den urteko azaroan, Iurretako banderaren mendeurrena ospatzeko antolatutako martxan ibilbidea markatzeko sekulako laguntza jaso genuen. Martxa aurreko egunean, Gallandako igoera markatzeko jarri genituen seinaleak sasi artean aurkitu genituen. Handik hiru ordura, berriro jarri ostean, okerreko bidea iragartzen aurkitu genituen seinaleak, horrelako todoterreno berde ilun bat ihesi zihoan bitartean. Azkenik, martxa egunean bertan, Gallandako igoerako bidexkan enbor lodi-lodi bat aurkitu genuen bidea oztopatzen eta seinaleak berriz kenduta.

Beste pare bat mendi irteeratan ere autoetatik irten eta ibiltzen hasi bezain pronto azaldu zaizkigu, ordu batetik gorako kontrol baten ostean, egun on bat izan dezagun opatzeko. Gure mendi taldeak antolatutako ekintzak beste batzuen aldean oso xumeak izan daitezkeen arren, ez dugu imaginatzen, adibidez, Espainiako Itzulian lasterketa moztu eta txirrindulariak identifikatzen edo hauek okerreko bidetik bidaltzen. Zoritxarrez edo zorionez, uda lehorra izan bada ere, mendiko zelaiak berde ikusi ditugu, berdez jantzitakoez beteta. Berdin neguan elurra denean, udazkenean hostoak erortzen direnean edo udaberriko loraldi koloretsuan. Hego Euskal Herriko errepideetan bezalaxe mendian ere nork ez du hauekin topo egin aspaldian? Fusilak tarteko, inpotentziaz lurrera begira eta zure mendiko motxila miatzen dabiltzan bitartean, bat-batean, txoriaren kantua entzutean, konturatzen zara hegaka dabilen hori dela momentu horretan aske sentitzen den bakarra. Pena da ba, sarritan mendira egunerokotasunetik eskapatzeko eta askatasun arnas apur baten bila zoazenean horrelako jende moduarekin aurkitzea.

Bukatzeko, eskerrak eman antolatutako ekintzetan parte hartu duzuen guztioi eta bolondres modura aritu zaretenoi. Jakin mendizaletasuna sustatu nahian lanean jarraituko dugula irteera desberdinez betetako beste urte berri bat hasteko asmoz.

Zaldai Mendi Taldea

Preso gaixoen eskubideak errespetatu

Aste honetan, Irailaren 25ean izandako osoko bilkuran mozio bat aurkeztu genuen Aralarrek eta Bilduk preso gaixoen inguruan. Gaur egun hamahiru dira kalean egon beharko luketen presoak, daukaten osasun egoera larria dela-eta. Mozio horretan, gaixorik dauden presoen eskubideak errespetatzea eskatu dugu, baita Durangoko Udalak konpromisoak har ditzan ere. Legea eskuan hartuta, 92. artikuluari dagokionez, kalean egon beharko lukete preso hauek, beraien gaixotasuna sendatzeko behar duten tratamendua jaso dezaten, espetxean ezinezkoa baita. Beraz, mozio honen bitartez eskatu duguna da Durangoko Udalak Madrilgo gobernuari beraien legea bete dezaten exijitzea.

Orain arte gai honen inguruan ezer gutxi egin duen PNVk, sarritan oztopoak jarriz gainera, mozio alternatibo bat aurkeztu zuen ezer zehazten ez zuena, oso orokorra zena. PNVk bazekien mozioa aurkeztuko genuela, gai ordenean agertzen baitzen. Gurekin mozio bateratu bat egiten saiatu ordez, beraiena osoko bilkuran bertan banatu zuten eztabaida zedin, hau da, guk ez genekien beraiek ere mozio bat aurkeztuko zutela. Normala denez, jakinaren gainean egonez gero beraiekin adosten saiatuko ginen testua.

Hasiera batean ez genuen ulertzen zergatik egiten zuen hori PNVk, baina bozketen emaitzak ikustean dena ulertu genuen. Gure mozioan, PPk eta PSOEk, beraiek egindako legediaren kontra eginez, ez zuten aldeko bozkarik eman, ezta PNVk ere. Beraz, gure mozioak aldeko zortzi bozka jaso zituen, Aralar eta Bildu alderdienak. PNVren mozioak, ez zuenez ezer zehatzik adierazten, ez genion aldeko bozkarik eman eta soilik beraien aldeko bozkak jaso zituen: zortzi bozka. Bozka berdinketa ematen denean bi mozioetako batek ere ez du aurrera egiten, hau da, ez da bietako bat bera ere onartzen.

Beste behin ere, PNVk bere estiloa zein den erakutsi digu. Hau da, modu elektoralista batean mozio bat aurkeztuz eta ardura erakutsi nahian baina kalkuluak oso ondo eginda bozketan berdinketa bat emateko eta bi mozioetako batek ere aurrera egin ez dezan. Hasieratik kalkulatuta zeukaten mozio biak ez irtetea.

Horregatik trikimailuak alde batera uztera gonbidatzen dugu PNV eta benetan tratatzen ditugun gaiek duten garrantzia eman diezaioten exijitu. Denak ez du balio!!!

Durangoko Bildu

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org.

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

■Sei hankako mahaia

Aitziber Irigoras **EAJ**

Euskadi berpiztu II

Irakurle estimatua, eskuetan daukazu hauteskundeak baino lehenagoko azken zutabe politikoa. Kanpainan, *Anboto*ko lagunen erabaki zentzudunaren arabera, ez da halakorik egongo. Logika osoz gainera. Hauxe da, bada, Hauteskunde Autonomikoei buruz zuretzat, irakurle prestuarentzat, aldez aurretik idazteko izango dodan azken abagunea.

Dakizunez, irakurle zintzoa, Hauteskunde hauetan Eusko Jaurlaritza nork kudeatuko daben baino askoz gehiago dago erabakitzeko. Gure etorkizuna dago eztabaidagai. Gure Aberria aurrera eroateko asmoa eta berau egiteko bidea dago aukeran. Eta begibistakoak dira alderdi politikoen proposamenak. Dagoeneko nabariak dira bakoitzaren proposamenak, eginak eta, batzuen kasuan, bete gabeko promesak.

Alabaina, oraindik argi ez dagoena zera da: zer gertatuko da urriaren 22an? Zeintzuk izango dira alderdien arteko itunak boterea lortu edo mantentzeko? Lau urte gehiago eskatzen dabe sozialistek. Aurrekoan PPri lotuta lortu eben boterea, nahiz eta aurretik kontrako jarrera sutsua erakutsi. Oraingoan, norekin? EH Bildurekin? Irakurle zintzoak ezetz esango leuke, baina hor dago errealitatea. Gure herrian, Durangon, hainbat bider erakutsi dabe EAJren kontra egiteak (herritarren interes orokorra ahaztuta, noski) PSE eta Ezker Abertzalea batzen dituela. Eta ez soilik kontrako botoa emotean ‘koinziditzen’ dabelako, baizik eta elkarrekin mozioak sinatzen dabezelako. Bat eginda, irakurle maitea. PSEk, hauteskunde garaian, lagun berriak egiteko gaitasun aparta erakusten dau. Ezker Abertzaleak, tradizionalak eta besteak, demokraziaren eta lege-esparruaren bidea topatu dau orain-tsu, eta EAJ gainditzeko ia edozer egiteko prest dago.

Eta, sasi horien guztien gainetik, jeltzaleok, Aberriari zor deutsogun erantzukizuna eta ardura eskaintzen dogu. Gure Aberria bakarra da, eta egungo egoera ekonomikoarekin sufritzen ari da, herritarrak sufritzen ari dira. Ez dogu inoren kontra egin nahi, Aberriaren alde baizik. Irakurle argia, Euskadi bezpiztu!

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MANARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko irailaren 28a
10. urtea - 473 zk.

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Maialen Balanzategi.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

@anbotokirola

KIROLAK >

Altuera falta da oztopo nagusia

Uztaipean jokalari garai gutxi eduki arren, Tabirako Baqueko talde nagusien entrenatzaileak itxaropentsu azaldu dira

Saskibaloian jokalari garaiak izateak abantaila ematen du uztaipean, piboten arteko jokoan. Ezaugarri hori ezin daiteke entrenamenduetan landu, edo badago edo ez dago. Landu daitekeena gabezia horri aurre egiteko alternatibak dira eta Tabirako Baqueren gizonen eta emakumeen talde nagusiak horretantxe dabiltza. Biei ala biei, altuera falta zaie saskitik gertu, baina entrenatzaileak itxaropentsu daude eta talde lehiakorrak dituztela diote.

Gizonek asteburu honetan ekingo diote denboraldiari. Orain denboraldi bi taldea EBA mailan zuzendu zuen Tomas de Castrok Alberto Alonso ordezkatuko du entrenatzaile karguan. Gorka Olaso bigarren entrenatzailearen esanetan, altuera falta jokoari bizitasuna emanda konpentsatu nahi dute: "Kontraerasoan azkar irteten eta nagusi garen egoerak sortzen saiatuko gara. Defentsan, inoiz baino intentsitate handiagoz ibili beharko dugu". Iaz ikaragarri sufritu zuten mailari eusteko. Aurten hamar onenen artean sartzeko taldea dutela uste du, baina, iazkoa gogoan, mailan egonkortzea ere emaitza ona izan daiteke.

Iaztik hona funtsezkoak ziren hiru jokalari joan zaizkie: Aitor Onaindia, Arkaitz Gurrutxaga eta Mikel Gandarias. Hutsune horiek betetzeko beste hiru jokalari etorri dira Zornotzatik: Imanol Martinez pibota, Carlos Diego hegalekoa eta Xabi Anasagasti base-hegalekoa. Azken hori, laneko konpromisoek ahalbidetzen dioten arte egongo da taldean. Hiru jokalari horiei beste bi gehitu behar zaizkie, parentesi baten ostean saskibaloira bueltatu diren jokalariak: Oinatz Meñika hegalekoa eta Mikel Agirre basea.

Nesketan, pazientzia eske

Emakumeen talde nagusiak urriaren seian hasiko du denboraldia. Joandako jokalariak gazte mailakoekin ordezkatu dituzte: Mirari Aldekoa (hegalekoa), Ane Garitaonandia (basea), Gorane Urain (hegalekoa) eta Ainhoa Baque (Hegaleko pibota). Iaz erregionalean aritutako Matxalen Mancisidor ere batu zaie.

Talde gaztea eta garaiera txikikoa dutela dio Alberto Molina entrenatzaileak. Horregatik, pazientzia eskatu du: "Liga hasiera gogorra dugu. Porrotak badatoz, pazientzia eskatzen dugu. Talde gaztea da eta garaiera faltagatik sufritu egin dezakegu. Gazteek etorkizun handia dute, baina taldea egin arte pazientzia behar da". Apurka iazko maila eskaini dezaketela uste du. ■ J. D.

Goian, gizonen aurtengo talde nagusia; behean, emakumeena.

Aurkezpeneko irudiak >

> Argazki gehiago: **www.anboto.org**

Jesus de Vicente omendu zuten 25 urtez egindako lanagatik

Mende laurdenean klubaren alde egindako lana eskertzeko, Tabirakok urrezko eta brillantezko intsignia ipini zion Jesus de Vicenteri. Durangarrak klubeko presidente Itsaso Garciaren eskutik jaso zuen intsignia Landako kiroldegian, klubaren aurkezpen ofizialeko ekitaldian. Gaur egun, Vicente klubeko kirol zuzendaria da eta kadete mailako mutilen taldean ere badabil laguntzaile. Urte hauetan guztietan egindako lana "emankorra eta ordainezina" dela adierazi zuen Garcia presidenteak.

Txiki-txikitatik futbolean euskara erabil dezaten

‘Futbolean Oinarritik Euskaraz’ ekimenagaz, ikastetxe eta futbol taldeetako entrenatzaileei umeak euskaraz trebatzen irakatsi diete

Koikili Lertxundi, Oskar Zarrabeitia eta Lehior Elorriaga ekimenaren berri ematen.

Gazte-gaztetatik baloia atera jaurtitzeko mekanika landu duena, etorkizunean golegileagoa izango da, mekanika hori behar moduan landu ez duena baino. Gauza bera gertatzen da hizkuntzagaz. Umetatik futbolean euskaraz pentsatzen duenari, hazten denean terminologiak ezagun egingo zaizkio eta naturaltasunez erabiliko ditu. Hori da *Futbola Oinarritik Euskaraz* ekimenaren helburua. Hiru astez Durangaldeko hainbat futbol klubetako eta ikastetxetako 32 entrenatzailek euren jokalariak (kadete mailara artekoak) euskaraz zelan trebatu jakiteko ikastaroa egin eta materiala jaso dute.

Durangaldeko Amankomunazgoko Euskara zerbitzua, Berbaro euskara elkartea eta Itzarri Consulting enpresa ari dira ekimena gauzatzen. Iazko lehenengo aldian, futbol klubetan zentratu ziren. Aurten, ekimena ikastetxeetara zabaldu dute eta harrera ona izan du. Iaztik hona, entrenatzaileen kopurua nabarmen igo da: 14tik 32ra. Etorkizunean ekimena beste kirol batzuetara zabaldu gura dute. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidenteak ekimenaren aurkezpenean azaldu zuenez, “ikastaro hauek baliozkoak dira euskararen normalkuntzan aurrera egiteko, haur asko dabiltzalako futbolean”.

> Etorkizunean ekimena beste kirol batzuetara zabaldu gura dute

> Irailean kontzentratu dituzte klase teorikoak eta praktikoak

Berbaro elkarteak euskaraz bizitzeko guneak eta uneak sortzea du helburu eta bide horretan garrantzitsua dela uste dute kirol munduan euskara txertatzeko baliabideak eskaintzea.

Eskualdeko bederatzi ikastetxetako entrenatzaileak eta Zaldua kirol klubekoak batu dira aurten ekimenera. Hala ere, parte hartu ez duten ikastetxeen aldetik ere jarrera positiboa jaso dutela adierazi zuen Lehior Elorriaga Berbaroko ordezkariak.

Ikastaroa astelehenean amaituko da. Iaz ez bezala, aurten irailean kontzentratu dituzte klase teorikoak eta praktikoak, ligarik gehienak hastear daudenean. Aurrerantzean Berbaro elkarteak jarraipena egingo die ekimeneko taldeei, eskainitako baliabideak egunean-egunean zelan gauzatzen diren ikusteko.

Ikastaroa egin duten entrenatzaileekin Ian poltsa osatuko dutela ere adierazi zuten prentsaurrekoan. ■ J.D.

ADITUAREN TXOKOA

Ruben Perez
Euskaltel-Euskadiko teknikaria

Kontzientziatu beharra

Lerro hauekin auto gidariak kontzientziatu nahi nituzke. Gidari batek txirrindulari bat aurkitzen duenean, ez da ezer gertatzen apur bat frenatu, itxaron, eta egoerak ahalbidetzen duenean aurreratzeagatik. Legeak dio metro eta erdiko distantzia utzi behar dela eta ezelan ere ez da larregizko distantzia.

Ezin duzue imaginatu zelako beldurra izaten dugun autoak gertu-gertutik pasatzen zaizkigunean. Txirrindulari batek beste edozein gidarik adinako eskubidea du errepidean zirkulatzeko, eta errespetu beragaz tratatu beharko lirateke. Txirrindulariek binaka zirkulatzeko eskubidea dute eta taldean doazen ibilgailu bat balira bezala hartu behar dira. Bidegurutze batean txirrindulari talde bat errepidea gurutzatzen aurkituz gero, azkena pasatu arte eurek dute lehentasuna eta gidariak geratu egin behar luke, errepidea gurutzatzen trailer bat egongo balitz frenatuko lukeen modu berean.

Estres handiagaz gidatzen dugula uste dut eta ahaztu egiten dugu minutu bat lehenago heltzeagatik egoera tragikoak eragin daitezkeela. Jende askori ez zaio txirrindularitza gustatuko, baina hori ez da arrazoia inori errespetua galtzeko. Orain gutxi, Euskaltel-Euskadiko Victor Cabedo taldekidea hil da entrenatzen zebilela. Berak bizia galdu du eta familia, neskalagun eta hurreko lagunak txikituta daude. Arduraz eta arretaz gidatuta ekidin zitekeen ezbeharra dela uste dut. Orain berandu da, baina berriro gerta ez dadin saiatu gaitezke. Nire doluminak eta berotasuna eman nahi dizkiet Victorren familiari eta bizia errepidean utzi duten ziklista guztiei.

Erredakzioan itzulia

Tarsiciok eta Peñak irabazi dute Aramaioko rallysprinta

Hirumet Taldeko Iban Tarsicio auto gidariak eta Iñigo Peña kopilotoak Aramaioko Rallysprinta irabazi zuten joan zen zapatuan. Lasterketa Euskadiko Rallysprint Txapelketarako puntuagarria zen. Txapelketa hau amaitzeko lasterketa bakarra falta da, urriaren 27an Eibarren jokatuko dena.

Atxondarrak dira biak eta bai bata zein bestea Durangalde Racing Elkarteko pilotuak dira. Iaz arte Ford Scort bategaz aritu ziren; aurten, Mitsubishi EBO IX autoagaz dabiltza. ■ J. D.

Ariznabarreta eta Maiora nagusi Sorginen Lasterketan

Sorginen Lasterketako bosgarren edizioa jokatu zen Atxondon joan zen domekan. Sasoi puntu onean daudela erakutsiz eta aurreikuspenak betez, Oier Ariznabarreta durangarra (2.06.12) eta Maite Maiora (2.27.08) mendaroarra izan ziren onenak.

Horrela, Maiorak iazko txapela berritzea lortu zuen Sorginen Lasterketan. Ariznabarretak Atxondoko lasterketa irabazten duen lehenengo aldia da. Gizonetan, Iker Bernas durangarra zortzigarren helmugaratu zen.≠ ■ J. D.

Ezkurdin hasita, auto klasikoen rallya jokatuko dute gaur eta bihar

Parte-hartzaileen artean Espainiako, Frantziako eta Herrialde Katalanetako autoak daude

Klasikoak eta historikoak batuta, 25 urtetik gorako 75 autok parte hartuko dute gaur eta bihar Klasikoen Rallyan. Etorriko den autorik historikoena 1961eko Alfa Romeo Giulietta Sp bat da, frantziar batena.

Clasicos Durango eskuderiak antolatzen duen rallyak 12. aldia egingo du aurten. Gaur, 16:00etatik 20:30 ingurura, auto denak Landako Erakustazokan egongo dira egiaztapen teknikoak egiten. Lasterketako lehenengo etapa 21:00etan hasiko da Ezkurdin, eta gutxi gorabehera gaueko 02:30ean helmugaratuko da aurrenekoa.

> Aurreratu dutenez Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik ibiliko dira

Zapatuan, 11:00etan piztuko dituzte berriro motorrak eta egun osoko etapa izango dute aurretik. Antolatzaileen arabera, 21:00 inguruan hasiko dira Ezkurdin helmugaratzen. "Etapa gogorra izango da", dio Juanjo Gaztañazatorre ekimeneko antolatzaileetako batek, "baina lasterketak izen bat lortu du eta urrundik datozenei neurriko ibilbide bat ipini behar zaie hurrengoan ere bueltatu daitezen". Izan ere, Madril, Malaga, Valentzia, Bartzelona eta Kanariar Uharteetako parte-hartzaileak datoz, baita Frantziako hainbat gidari ere.

Autoak gehienez 50 kilometro orduko abiaduran ibili ahalko dira, eta egunean bertan jakinaraziko zaie ibilbidea. Aurreratu dutenez, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik ibiliko dira parte-hartzaileak. ■ J. D.

Gaur Landako Erakustazokan batuko dira auto guztiak. Clasicos Durango

EGITARAUA

BARIKUA
- **16:00etatik 20:30era:** Egiaztapenak Landako Erakustazokan.
- **21:00etan:** Lasterketaren hasiera Ezkurdin.

ZAPATUA
- **11:00etan:** Bigarren etaparen hasiera Ezkurdin.
- **21:00etan:** Lasterketaren amaiera.

Agenda

FUTBOLA
OHOREZKO MAILA
Iurretako - Gurutzeta
Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain.
LEHENENGO ERREGIONALA
Berriz - Basurto B
Domekan, 11:30ean, Berrizburun.
Zaldua - Ugao
Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.
BIGARREN ERREGIONALA
Ezkurdi - Indarra
Zapatuan, 16:30ean, Arripausuetan.

ARETO FUTBOLA
EUSKAL LIGA
Kurutziaga - Berrio Santutxu
Zapatuan, 19:15ean, Landako kiroldegian.
Abadiñoko Lagun - Kukulaga Etxebarri
Domekan, 11.45ean, Berrizko kiroldegian.
GOREN MAILA
Presion Break - Atletismo Ortuella
Zapatuan, 17:15ean, Berrizburu kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA
Elorrioko B - Gu Lagunak
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.
Dantzari - Freunde
Zapatuan, 17:30ean, Lanbide Heziketa Institutuan
Abadiñoko Gaztetxie - Arabella
Zapatuan, 17:00etan, Traña Matienan.

SASKIBALOIA
LEHENENGO MAILA
Tabirako Baque - Araberri
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

PILOTA
OLAZAR TXAPELKETA
Lau t'erdian:
- Labaka-Bendeiro
Binaka:
- Uriona-Irusta / Andreu-Uzkudun
Urriaren 4an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan.

Faboritoek ez dute hutsik egin trinketean

Amankomunazgoa Sarian, espero ziren bikoteak heldu dira gaurko finalerdietara

Final laurdenetako partidua Tornosolo trinketean. K. Aginako

Gaur, 19:00etan, Amankomunazgoa Sariko finalerdiak jokatuko dituzte Abadiñoko Tornosolo trinketean. Lehenengo partiduan Mikel Gonzalez berriztarrak eta Landak, Ander Antxia abadiñarraren eta Barandiaranen kontra jokatuko dute. Bikote biek erraz lortu zuten finalerdietarako sailkapena. Lehenengoek 18an utzi zituzten aurkariak eta bigarrenek 10ean.

Bigarren finalerdian Rober Uriarte abadiñarrak eta Ugartek, Gandiaga II.aren eta Arbizuren aurka jokatuko dute. Bikote biek latz sufritu behar izan zuten final laurdenetan. Tanto bakarragatik gailendu ziren lehenengoak eta bigatik bigarrenak. ■ J.D.

Motor lasterketa denak irabazi ditu Aitor Martinezek

Iparraldeko Abiadura Txapelketa irabazi du

Aitor Martinez motor gidari abadiñarrak Iparraldeko Abiadura Txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan Nafarroako Los Arcos zirkuituan. Txapelketa amaitzeko oraindik lasterketa bat falta den arren (Motorland, Aragoi, Espainia), Martinezek orain arteko bostak irabazi ditu eta matematikoki bera da txapeldun. Txapelketan goitik behera agindu du abadiñarrak. Esaterako, Nafarroako lasterketan polea egin zuen eta zirkuituko errekor berria ezarri 600 zm^3-tan: 1.45,06.

Datorren denboraldian Espainiako txapelketan aritu gura du Martinezek (1.000 zm^3-tan) eta finantziazioa lortzeko laguntza eske dabilela argitu du. ■ J.D.

Kirola eta jaia batuko ditu Mallabiko mendi duatloiak

Lasterketa ostean herri bazkaria egongo da

Domeka honetan Mallabiko bigarren mendi duatloia jokatuko dute. Kirola eta jai giroa uztartzea da helburua, eta lasterketaren harira herrian giroa berotzeko hainbat ekimen prestatu dituzte.

Goizeko 10:00etan gaztetxoei begirako duatloi txikia egongo da. Nagusien lasterketaren ostean, berriz, bazkari herrikoian batuko dira, pilotalekuan. Iazko lehenengo aldiko irudiekin osatutako bideo emanaldi bat ere eskainiko dute.

Lasterketari dagokionez, 11:00etan hasiko da Mallabiko plazatik. Ibilbidea iazkoa baino leunagoa da, baina gogorra hala eta guzti ere. ■ J.D.

Eneritz Iturriagak txirrindularitza utziko duela iragarri du

Eneritz Iturriaga abadiñarrak txirrindularitza utziko duela iragarri du. Iturriagak dio ez duela txirrindularitzan jarraitzeko indarrik: "Fisikoki ondo nago, baina une honetan bizitzan beste gauza batzuk egin nahi ditut. Ez dut nahi txirrindularitzak eskatzen duen bizitza loturik". Gainera, "goi mailan mantendu nahi bada kanpoko talde profesionaletara joan beharra dago eta orain ez dut horretarako adorerik".

Joan zen asteburuan Valkenburgeko (Herbehereak) munduko txapelketan 35. postuan amaitu zuen. Nagusietan munduko txapelketan parte hartzen zuen hamabigarren aldia izan da. ■ J. D.

AISIALDIA >

mendi ibilbideak

Durango-Larrinagatxu-Santa Luzia-Mugarra: hiritik mendi tontorrera joateko ibilbidea

Durangaldeko paisaia bikaina eta saiak ikusteko aukera ematen du Mugarrarako bideak

Durangotik irten eta Larrinagatxu auzorako bidea hartu behar da lehenengo. Zati hori eginda, Arrioletxe baserritik hurrean dagoen bide zabala hartzea tokatzen da. Ibiltariak Durangaldearen ikuspegi itzela topatuko du eremu horietan. Pista hartu eta pinudian sartzea izango da hurrengo zeregina. Horiz eta zuriz seinalatutako bidetik jo behar da gero. Hortik, Santa Luzia auzora heldu, eta pintura markak jarraitu behar dira txabola batera ailegatu arte. Aldapa gogor baten ostean, Katazka haitzartera helduko da mendizalea. Mugarrikolanda izango da hurrengo geltokia. Bertan ura edatea posible da Oiñiturri iturrian.

Atseden apur bat hartu ostean, Mugarra tontorra igotzen hasteko ordua helduko da. Gogorra da, baina goitik ikusi ahal den paisaiak merezi du ahalegina egitea.

DISTANTZIA	IRAUPENA	DESNIBELA	ZAILTASUNA
8 km	4 ordu	850 m	Nahiko zaila

ZER IKUSI...

Mugarrikolanda

Mugarrikolandako iturria

laguntzaileak: berrizko UDALA · Garaiko Udala · Iurretako Elizateko Udala · Mallabiko Udala · Otxandioko Udala · Zaldibarko Udala

babeslea: durango TURISMO

DURANGO

ERROTARITXUENA

Arriskurik gabeko aukera bat

Denbora ziurtatzen ari da

Egiazta ezazu!

2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZ

3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZ

www.sukia.com
www.solvia.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

INMOBILIARIAK >

AMBOTO
INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

• SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
• Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
• 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatzeko.
• ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
• EZKURDI: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua.
• FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
• HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
• ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
• ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
• BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

• 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

• ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
• 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

• 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

• 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

IURRETA

• 2.000 m2-ko lursaila salgai. Leku zoragarria. Sarbide ona.
• 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

• 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruitarbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

• 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu.Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

• 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

• Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

ZORNOTZA

• LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK SALGAI

ABADIÑO

• 5 hektareako lursaila duen baserria. Zonalde zoragarria.

BERRIZ

• MURGOITIOn kokatuta dagoen baserria salgai.Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

• ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
• DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatuak eraikitzen.
• BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
• OTXANDIO: Adosatuak. Eraikuntza berriak. 174.500€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

• ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
• ANDRA MARI: Halla, egongela, egongelatxoa, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun.
• ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
• ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko.
• ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
• ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
• BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna.
• BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
• BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
• ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
• GALLANDA: Estreinatzeko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
• GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.
• EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
• F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
• F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
• GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
• INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
• IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
• JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa. Lursailarekin.
• KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
• KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia).
• KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
• KURUTZIAGA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Despentsa handia. Ganbara.
• LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
• MARTXOAREN 8ª: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta 2 komun. Terraza handia.
• MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
• MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
• PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
• TXATXIENA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta despentsa. Balkoia. Ganbara eta garajea.
• SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
• SAN FAUSTO: Halla, sukalde.jangela, 2 logela eta komuna.
• SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
• TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
